



Urnietara datoz, Pirritx eta guzti

Aspaldian agertokietatik kanpo izan eta gero,
maiatzaren 24an Pirritx Urnietan izango da / 15



Elkarrizketa sorta: Urnietako alkategaiak

Aste honetako Aiurri Urnietako alkategaiei egindako
elkarrizketak argitaratuko dira. Datorren Aiurri astekarian,
berriaz, Andoaingo Udal hautagaiak / 2-5



**Urniet KE eskubaloit
taldea Nazional
2. mailara
sailkatzeko bide
onetik doa** / 12



**Jon Gaztañaga
futbolariari
elkarrizketa,
Zipreko kopako
finalaren atarian** / 11



**Nahikari Garciarekin
batera partida
ahaztezina bizi izan
zuten lagunak,
Granadan bertan** / 13

MAIATZAK 24, OSTIRALA

17:30 **URNIETA** Egape ikastolako jolastoki estalia

**AURRE
SALMENTA:**
Maiatzaren
6tik aurrera.

HERNANI
• Leokadisti. Urbieta kalea, 6.
URNIETA
• 2KN okindegia.
M.Yurramendi 2, udaletxearen ondoan.
ANDOAIN
• Aiurri. Arantzibia plaza.
• Ernaitza liburudenda. Zumea kalea

**SALMENTA
EGUNEAN
BERTAN:**
16:30. Egape ikastolako
jolastokiaren atarian.

7€
Antolatzaile
AIURRI
Laguntzaile



Herme Gonzalez Moran izango da Urnietako sozialisten hautagaia, maiatzaren 26ko Udal hauteskundeetan. PSE-EE

"Antipodatan gaude PSE-EE eta EAJ-PNV"

HERME GONZALEZ URNIETAKO PSE-EE ALDERDIKO ALKATEGAIA

Hogeitaz zinegotzi izan eta gero, lau urteko atsedenaldia hartu zuen. Batzar Nagusietan aritu da denbora tarte horretan, berriro ere Urnietako politikagintzara itzultzeko

Jon Ander Ubeda URNIETA

Zer dela eta itzuli zara lehen lerrora?

Itzuli baino, ez naizela sekula joan esango nuke. Hogeitaz zinegotzi lanetan aritu nintzen. Beti oposizioan, oso erregarria da. Lan asko da, ikusten ez dena. Frustrazioa nagusitzen da, norberaren egitasmoak ez baitira aurrera ateratzen. Afiliatuekin

adostuta atseden hartzea erabaki genuen, baina Frutosi laguntzeko gertu izan naiz beti. Gipuzkoako Batzar Nagusietan izan naiz, eta esperientzia pilatu dugu. **Herri modura, zer da zuretzat Urnietak?**

Gipuzkoan barrena gabilta kanpainan, eta Lazkaon izan berri naiz. Urnietak baino herri txikia-

goa da, eta aldiz giro hobea dago. Herriari giroa falta zaio, eta herriarrek bertan bizitza egitea falta da. Kontu politikoa da, agintean daudenek giro hori ahalbidetu behar dutelako. Fes-tetan ere hori ikusten da, ez da denentzat antolatzen. Eta egunerokoan ez da jenderik ikusten kalean. Idiazabal kalea indartu

da, eta hemen periferiak sortzen ari dira. Urraka, esaterako, baztertu samar dago.

Zergatik ez da Urnietan gauzatu Gipuzkoa mailan EAJ eta PSE-EEren artean dagoen adostasun markoa?

Urnietan ez da gauzatu, inondik inora. Agintaldi honen hasieran alkatearengana hurbildu ginen. Gehiengo osoa zutela jakin bagenekien, eta hala ere lankidetzak eskaini genien baina ez zuten ezer jakin nahi izan. Are gehiago, gurekiko ez dute inoiz tratu ona erakutsi. Bake eta bizikidetzak plana utzi genuen, Urnietako Udala bizikidetzan ez zelako eredugarria.

Zer aldatu beharko litzateke?

PSE-EEK hauteskundeak irabaztea, hori litzateke aldaketa handiena. Zaila da, baina euren aldetik jokabidea aldatu beharko litzateke. Bestalde, argi esan nahi dut: Urnietan oposizioa egin duen alderdi bakarra PSE-EE izan da.

EAJ-PNV aldiz garaile izaten ari da hauteskunde guztietan.

Bai, agerikoa da hori. Errespetatu beharra dago, nahiz eta ez konpartitu. Guk aukera bat aldarrikatzen dugu. Esan ohi dudana bezala, EAJ-PNVk irabazten ez badu eguzkia berdin berdin aterako da. Bitxia da, hauteskunde ezberdinetako datuei erreparatuta Urnietak ezkertiarra da. Eta zergatik agintzen du eskuinak? **Matematikoki posible balitz, orduan, PSE-EE eta EH Bilduren arteko akordioa gerta liteke?**

Beno, hori nire eskuetatik kanpo dago. Ez da Urnietako kontu bat. Alderdien arteko kontua da hori. Esan nahi dudana da ezkertiar joerako boto asko dagoela Urnietan.

Zeintzuk dira zuen egitasmo nagusiak, hauteskunde programan bilduko dituzuenak?

Etxebitzaren gaia kezkarria da, oso. Mañeruko etxebizitza sorta kenduta, ez da egitasmorik bideratu azken 18 urteotan. Datu ikaragarria dugu eskuartean: 2017an Urnietak utzi zuten 25-35 urte arteko gazteak 100 izan ziren. Benetako arazoa hori da. Ez da gazteriako arazoa bakarrik, horrek jaiotze tasaren murrizketan eragiten du. Jaiotzen tasa erdira jaitsi da. Ikastetxeei eragindak die, eta baita bizitza sozialari ere. EAJ-PNVk dio etxebizitzaren arazoarekin ez duela zerikusirik, eta guk uste dugu baietz. Zerikusi zuzena du. Etxebizitzaren aldekoa izango da

gure benetako apustua. Gazteak Urnietan gera daitezten, eta bizitza bertan egin dezaten.

Igerileku estaliaren alde egingo du. Kiroldegian ere taberna eta kafetegia egotearen alde egingo dugu. Kiroldegia al-deko eskaera historikoetan eta azken parte hartze prozesuetan igerileku itxiaren aldeko milatik gora sinadura bildu dira. Hori aldarrikatzen duen bakarra gara.

Aldundiarekin zaharren egoitza eraikitzeak hitzarmena dugu, eta konpromiso hori betearazteko hortxe egongo gara.

Aisialdi gunea estali nahi dugu Etxeberriz plazan, askoren eskaera baita. Eta baita haur parke bat estaltzea ere.

Eta zein beste alor edo atal indartu nahi dituzue?

Ezkerreko politikak egin behar dira, besteak beste, berdintasunaren alorrean. Duela hamalau urtetik hona Jaurilaritzarekin adostuta dagoen hezkuntza kanpus berria gauzatu behar da, Gaztetxe bat Mikaela Enean. Gazte askoren eskaria da, eta ez zaio eraikin horri erabilera-rik ematen. Utzikieriatik eroriko da, eta erabilera eman behar zaio horri. Udal zerbitzuak bateratu egin behar dira. Herri txikia da eta Udal zerbitzuak oso barreiatuta daude. Herritarren segurtasuna bermatu egin behar da, azken garaia hauetan gorabeherak gertatzen ari baitira. Eroskiera doan arrapala irisgarri bihurtu behar da eta benetako parte hartzea gauzatu behar da Urnietan.

Zein da maiatzaren 26rako egiten duzun aurreikuspena?

Zaila da, baina lehentasunezkoa da EAJ-PNVk gehiengoak galtzea. Ikusi baitugu ez dela batere ona. Gure proposamen asko ez dituzte kontutan ere hartu.

Akordio politikoei dagokionez, maiatzaren 27tik aurrera zer?

Gipuzkoa mailan jeltzaleekin akordioa berresten bada, Urnietan oso zail ikusten dut hori. Antipodatan gaude. Adibideak: Kiroldegia, igogailua, bizikidetzak, propagandak eta kontratazioa bideratzen duten dirutza...

"GAZTEAK URNIETAN GERA DAITEZEN ETXEBIZITZAREN ALDEKOA IZANGO DA GURE APUSTUA"



Ainara de Miguel Urnietako EH Bilduko hautagaia. AIURRI

"Herrigintzan txertatu behar da Udala"

AINARA DE MIGUEL URNIETAKO EH BILDUKO ALKATEGAIA

Azken bi agintalditan oposizioan egon den lehen indarraren buruzagi bilakatu da. Egindakoaren ikuspegi kritikoarekin, etorkizuneko Urnietari ekarpenak egin nahi dizkio

Xabier Lasa URNIETA

Zer dela eta hartu zenuen alkategai izateko erabakia?

Saltsa guztietako perrexila naiz, eta Urnietako egunerokotasunean fronte askotan nabil sartuta. Herriko elkarteetan, ikastolan, zerbitzu eta mertakaritza munduan, larrutan bizi dut etxebizitzaren arazoa... Hautagaitza-

rako proposamena iritsi zitzaizdanean, Urnietako etorkizunari begira ekarpenak egin ditzak kedala ikusi nuen. Toki egokia da EH Bildu.

Zer nolako ekarpenak egiteko asmotan zabilta udalgintzan?

Politikarekin baino gehiago herriarekin daukat harremana. Herrigintzan parte hartzen dut

eta herritar gisa sumatzen ditudan gabeziak eta zailtasunak udaletxera eraman nahi nituzke. Iruditzen zait udalgintzan ez dela jardun behar goitik beherrako begiratu batekin; herrigintzan txertatu behar da, hemen gojendearekin egon eta bizi, herrian sortzen diren ekimene- tan parte hartuz eta bultzatuz.

Nola definituko zenituzke Urnieta eta urnietarrak?

Osagai ugari eta oso aberatsak daude Urnietan. Badira hainbat arlotan elkarteak eta taldeak, baina beraien artean ez dago konexiorik, ez da harremanik lantzen. Urnieta 'herri logela' bilakatu da. Donostiako auzoa dirudi maiz, eta eskualde zein herrialde mailan egiten den politikak horrela izatera bultzatzen du gainera. Zerbitzuak zentralizatzen ari dira, eta merkataritza ere husten ari da. Oro har, herrigintzan parte hartze gutxi dago, apatia moduko zerbait. Batek esaten zidan lehenengo batean: "Urnietako oso eroso da, ez du arazorik sortzen, bakea dago bertan". Eta egia da. Bakea denok dugu maite, baina ez apatiarekin zerikusia duen bake klase hori. Urnietar izatearen harrotasun hori falta sumatzen dut, eta "gerra" modu eraikitzailean emango duena. "Gerra" emango diena udal ordezkariari, horiek lanez gainezka jarriko dituen, eta legegintzaldi amaieran erreleboa eskatzera behartuko dituen.

Zer egin dezake Udalak errealtate horri aurre egiteko?

Apatia horren kontrako mekanismoak ipintzea behar luke izan Udalaren ardura. Gizarte, kirol eta kultur elkarteak laguntzak eskaini behar zaizkie. Dinamika biziak sortu behar dira. Ez du balio herritarrek edo elkarteek egiten dituzten proposamenak entzutea, eta gero erantzunik ez ematea. Eta hori da maiz Urnietan gertatzen dena. Mingarria da isiltasuna, erantzun gisa; horrek, azkenean, tristetu eta otzandu egiten du proposamenekin agertu den herritar hori, ilusioa zapuzten zaio.

Nola definitzen duzu zurekin doan hautagai taldea?

Bi taldetan banatuta dago. Lehenbizikoak badauka eskarmentua udalgintzan, urtetan aritua delako. Eta beste erdiagatik esango nuke inoiz ez dela sigla baten pean agertu, ez lehen lerroan ezta bigarren goan ere; baina herriko ekimenetan zeharo bustita dabil. Bien batura aberasgarria da; eta garrantzitsuena dena, denek ere elkarlanean aritzeko ilusioa daukatela.

Lekaion egin zenuen aurkezpen ekitaldian, herritarrei udal lan taldean integratu edo ekarpenak egiteko gonbitea luzatu zenien.

Oso baikorra izan da erantzuna. Frogatu ahal izan dugu urnieta-

rrek badaukatela zeresana, eta iritzia emateko gogoz daudela. Hainbat arlotako jende ugariarekin egon gara, eta denei ere galdara berbera egin diegu: nola ikusten duzu Urnieta? Prest azaldu gara proposamenak jasotzeko; hori bai, printzipio gisa ez dugu onartzen "hau ez zait gustatzen" huts bat. Esaldiak proposamen eraikitzailea ekarri behar du berarekin. Arloz arlo, zenbait ildo ezarri ditugu. Proposamen asko ez dira epe motzean egingarri izango, baina lan dinamika bat sortzen ari gara udalgintzan inplikatu dena.

Zeintzuk dira zuen hauteskunde programaren ildo nagusiak?

Gazteei dagokionez, biltoki bat proposatzen dugu, beraien dinamika pizteko; transmititu behar zaie parte hartzen segi behar dutela, eta Udaletik erantzunak emango zaizkiela. Oso modu larrian bizi dute etxebizitzaren eta alokairuen gaia, Urnieta uzten ari dira, eta errealtate hori ekiditeko neurriak ezarri behar dira Udaletik. 0-18 urte bitarteko hezkuntza publikoa herrian txertatzeari ere garrantzia eman diegu.

Familiei begira, Urnietak biltoki estali baten premia dauka. Aitona-amonek funtzio garrantzitsua betetzen dute kontziliazioan, eta horiei ere babesa eman behar diegu. Herriko komertzio eta zerbitzueta bideratu dugu laugarrena, begi-bistakoa baita horiek biziberritzeko mekanismoak abian jarri behar direla. Xoxoka auzoa du jomuga laugarren atalak. Aparteko munduak dirudite maiz. Berdintasunaren aldeko politikaz gain, emakumeak ahalduzko lekua behar da.

Zein da maiatzaren 26rako egiten duzun aurreikuspena?

Pronostikoa baino gehiago, ilusioa aipatuko nuke, eta desio bat: gazteak eta helduak joan daitezela botoa ematera.

Akordio politikoei dagokionez, maiatzaren 27tik aurrera zer?

Proiektuak aztertu beharko dira. Une honetan, batik bat garrantzitsuena guretzat, lau urtera begirako herrigintzaren aldeko dinamika abian jarri izana da.

"URNIETAR SENTITZEAREN HARROTASUN HORREN FALTA SUMATZEN DUT"



Daniel Lizarralde urnietarra. AIURRI

"Bozka zuria baliagarria izan dadila"

DANIEL LIZARRALDE URNIETAKO AULKI ZURIAK EKIMENeko HAUTAGAIA

Boto zuria ematea edo abstentziara jotzea pentsatzen ari diren urnietar horiengana iritsi nahi du Aulki Zuriak-Escaños en Blanco alderdiak

Xabier Lasa URNIETA

Duela lau urte ezustekoa eman zenuten Urnietan, hautagaitza ez ohikoa eta ezezaguna aurkeztuz. Zeintzuk dira berriro ekiteko arrazoiak?

2011n Lekaia bozkatzeraz gerturatu nintzenean ez nuen ni ordezkatzeko ninduen alderdirik aurkitu. Orain dela 5 urte, Aul-

ki Zuriak alderdiarekin harremanetan jarri eta 2015eko tokiko hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko hautagaitza eratu nuen Urnietan. Orduko hartan 166 urnietarrek erabaki berdina hartu zuten. Oraingo hauteskundeetan ere berriz aukera berdina eskaini nahi diet urnietarrei. 200 boto inguru ordezkari-

ritza lortzeko, 200 boto besterik ez. Herritar ugari daude, azken lau urteetan jasan dugun gobernatzeko eraren aurrian, ezinezona eta desadostasuna azalarazi nahi dutenak; alderdi politiko berri baten bila daudenak. Gure taldea egoera hori zuzentzeko aurkeztu da. Ordezkatuak

sentitzen ez diren herritarrei bozka aukera bat emateko asmoz aurkeztzen gara.

Zuek botoa eskatzen duzue, gero udal ordezkariak uko egiteko. Azal ezazue hori.

Guk ez dugu ordezkariak uko egiten. Bozka ematen digutenak ordezkariak ditugu. Beste kontu bat da ordezkariak hori nola egikaritzen den; gure kasuan, zinegotzi eserlekua libre utziz egiten da. Gu hautatzen gaituzten urnietarren profila anitza da. Ondorioz, eserlekuak libre edo hutsik uztea aukera egokiena, argiena eta garbiena dela deritzogu.

Nor dago mugimendu honetan? Zuek urnietarra zara, taldekide gehiago dituzue? Urtean zehar dinamika ba al duzue?

Bai, ni urnietarra naiz eta nirekin zerrendan doazen lagun guztiak nirekin bat datozen pertsonak dira. Gurea alderdi apala da. Erakunde publikoetatik eratorri daitezkeen edozein soldata zein diru sarrerei uko egiten dien alderdia gara; afiliatu eta laguntzaileen ekarpenak bakarrik ditugu sostengu. Horrek guztiak mugatzen du gure lan dinamika. Azken urteetan lan isila eta apala garatu dugu Urnietan: bana-banako elkarrizketak izan ditugu gure ingurukoak direnak aitortu diguten pertsonekin.

Urnietan sinadurak biltzeko deialdia egin zenuten. Zein zentsazio iritsi zitzaizuen orduan?

Sentsazio oso baikorra jaso genuen. Sinadura ematen zigunak ezagutzen gintuen, eta hurrengo toki-hauteskundeetan zer egiteko asmoa genuen galdetzen zigun. Aurkezteko asmoa genuela aipatzen genienean esker hitzak jasotzen genituen. Urnietan bozka emateko aukera gutxi zeudela azpimarratzen ziguten. **Gainerako alderdiei programari buruz galdetzen diegu, atal honetan zer duzue esateko?**

Herritarrei proposatzen dieguna berezia da. Guztiz aldentzen da beste alderdiek egiten dituzten promesa sortengandik. Pertsona guztiek bozkatzeko eskubidea dute; baina, bozka guztiek ez dute berdin balio. Alderdi politiko nagusietan ordezkariak sentitzen ez diren herritarrek behartuta daude bozka zuria bozkatzeraz edo baliogabea aukeratzera, bozkatu gabe gertatzeraz, edota guztiz gogoko ez duten zerbait bozkatzeraz; beraz,

euren aukera inoiz ez da udaletxean islatua izaten. Ondorioz, betiko alderdi nagusiek, Hauteskunde Legeaz baliaturik, eserleku guztiak –eta diru guztiak– euren artean banatzen dituzte. Gure hauteskunde programa lerro batean laburtzen da: "Lortuko diren eserlekuak libre uztea, edozein soldata zein diru sarrerei uko eginez". Herritarrek eserleku bat hutsik uzteko eskubidea dutela defendatzen dugu; beraz, eserleku horrek herritarrei ez die euro bakar bat bera ere kostatu behar. Konpromiso hori lotu nahirik, Aulki Zuriak –Escalaños en Blanco–ko zerrendaburuek, notario baten aurrean, adierazi eta sinatu dugu lortuko ditugun eserlekuak libre utziko ditugula. Notario baten aurrean hori egiten duen alderdi bakarra gara, gure hitza beteko dugunaren adierazgarri.

Bestetik, Aulki Zuriak udalean lortzen duen presentziak sistema politikoaren kalitate demokratikoa neurtzen du. Geratzen diren eserleku libreak ohiko alderdi nagusiek ordezkatzeko ez dituzten herritarrenak baitira.

Boto protesta al da zuena? Abstentziona aktiboak zarete? Nola definitzen zarete?

Aukera politiko proposa aurkitzen ez dutenen aukera gara. Bozka zuria ematen dutenen aukera gara, beren bozka zuri eta aktibo eraginkorra bihurtzen dugulako; protesta egin duenaren aukera gara, bere protesta eserleku huts batean islatua izango delako; abstentzioan geratzen direnen aukera gara, guri bozkatzeko betiko alderdiei euren abstentzioa ez dela zerbait pasiboa adierazten dielako.

Baina, argi gera bedi. Guk ez dugu abstentzioa bultzatzen. Guk hauteskunde bidez bideratua dagoen parte hartze demokratikoa bultzatzen dugu. Ahalik eta pertsona gehienek parte hartu dezaten bultzatzen dugu; horrexegatik, bozka zuria ere baliagarria izan dadila aldarrikatzen dugu.

"200 BOTO INGURU BEHAR DITUGU ORDEZKARITZA LORTZEKO, 200 BOTO BESTERIK EZ"



Mikel Pagolaren hauteskunde kanpainako irudia. EAJ-PNV

"Indartsu ikusten dut nire burua"

MIKEL PAGOLA URNIETAKO EAJ-PNV ALDERDIKO ALKATEGAIA

2011ko eta 2015eko Udal hauteskundeak irabazita, Urnietako alkate lanetan aritu da azken zortzi urte hauetan. Lau urte gehiagoz aritzeko aurkeztu da

Jon Ander Ubeda URNIETA

Zein ekarpen egiten dio Mikel Pagolak Udalgintzari?

Mikel Pagolak bere horretan ez, ekarpena Mikel Pagolarekin batera aurkeztu den taldeak egiten dio. Herriari eta herri-gintzari begira, aurkeztu dugun talde berriak bi gauza uztartzen ditu: Udalgintzan esperientzia

duen taldea, baina baita ideia berriak dakartzan taldea. Kide berriak herrigintzan eta kolektibo ezberdinetan lan egindakoak dira.

Zer dela eta hirugarrenez hautagai izateko erabakia?

Lehenik eta behin, argi eta garbi, alderdiak eskatu didalako. Alderdiaren eta alderdiki-

deen eskaera izan da. Indartsu ikusten dut nire burua eta, tamalez, abian jarri ditugun egitasmo batzuk ez ditugu bukatu. Oso konprometitua eta burugogorra naiz, egoskorra, eta abiatutako ekimenak bukatu nahi ditut.

Nola definituko zenuke Urnietaren eta urnietarrak?

Etorkizuneko oso aukera ona daukan herria bezala definitu nahiko nuke. 1986an herri berri bat sortu zen, Oriako eremua Lasarte bilakatu zenean. Herriaren bi heren galdu genituen, 4.500 biztanlerekin. 2000ko hamarkadan hazkundeak izan genuen eta orain berriro garatzeko aukera handiak ditugu. Egin nahi ditugun garapen berriei Urnietako bizitza kalitatea hobetzeko aukera handiak daude.

Urnietaren eremu jeltzalea dirudi, hauteskunderen hauteskunde erakusten ari den indarrarekin. Azken hauteskunde hauetan EAJk bozka asko lortu ditu, baina historikoki ez da beti horrela izan. EAJ-PNV eta alderdi abertzaleak hauteskunde batzuetan besteetan baino hobeto aritu dira. Urnietaren herri anitza da eta hauteskundearen arabera botoak batera edo bestera joaten dira.

Lantaldea aurkeztuko zenuke, bereziki berriak?

Hauteskerrendan hirugarren doa Luke Goñi. Erizaintza eta antropologia ikasitakoa da. Erizain eskolan irakasle da, eta odol-emaelekin ari da. Hamabost urte darama Urnietan bizitzen, eta Gizarte Zerbitzuen alorra ondo ezagutzen du. Oso pertsona aktiboa da.

Laugarren doana Agurtzane Mercader da. Zuatzu industri-gunean informatika enpresa batean ari da lanean. Udal antolaketa talderako egokia izan daiteke. Herriko hainbat elkar-teetako kide da.

Seigarren doa Mikel Artola, 25 urteko gaztea. Irakasle da Irungo La Salle ikastetxean, eta txarangako eta Bosko Anitz aisialdi taldeko kidea da. Bere ezagutza dagozkion alorretan eskainiko du.

Agintaldia amaitzen ari da eta zeu aktore nagusietakoa zara. Nola baloratzen duzu 2015-2019 agintaldia?

Interesgarria izan da, bitartekotza berrien bidez herritarrekin harremanak areagotu direlako. Herritarrek ez dira lau urtean behin bakarrik erabakigarriak, urtez urte herrian hartu behar diren erabaki garrantzitsuenetarako ere herritarren ahotsa entzun beharra dago. Bide bat egiten ari gara, oso bide interesgarria.

Hauteskunde programari dagokionez, zeintzu dira proposatzen dituzun neurri garrantzitsuenak?

Laster etxeko etxe banatuko dugun programan, departamenduz departamendu, hainbat proposamen ageri dira. Herrian gehien eskatzen den zerbitzuetakoa haur parkea da. Horri ekingo diogu, baina parte hartze prozesu baten bidez. Herritarrei erabakitzeke aukera emango zaie.

Gizarte Zerbitzuei begira, azpiegitura mailako egitasmoak. Aldundiarekin batera nagusientzako egoitza berria Urnietan kokatzea. Eta baita Denda Berriren goitik beherako eraberritzea. Kanpoaldea berritzen aurtu hasiko gara, baina baita barrualdea ere. Espazio horretan elkarrekin etxea joango da eta, ahal izanez gero, Euskarategiarentzat gela egokiak prestatu nahi ditugu.

Abian jarritako egitasmoak bukatu nahi ditugu: Kiroldegi berria, derrigorrez. Kudeaketa mailan, Jaurilaritzarekin batera, DBHko eraikin publiko berria garatzea. Eta horrez gain Babiloniko eta Ermotegiko garapen urbanistikoak. Eta ez bakarrik gazteak bertan gertatzeko, baizik eta etxea irisgarri izan nahi duten adinekoei begira ere.

Zein da zuen aurreikuspena maiatzaren 26rako?

Borroka modukoa izan da, eta bi alderdi aipatuko nituzke: Eusko Alderdi Jeltzaleak aurkeztu duena eta EH Bilduk aurkeztu duena. Bozka gehienak bi alderdi horietara joango dira. Duela lau urteko emaitza errepikatzea zaila da, baina gustatuko litzaiguke ahalik eta gertuen egotea.

Akordio politikoei dagokionez, maiatzaren 27tik aurrera zerbait uarreratu daiteke?

Aldez aurretik ez dago ezer hitz eginda, guk ez dugu inorekin hitz egin. Orain arte erakutsi dugun bezala, guztiekin hitz egiteko prest gaude. Baina programen inguruan, eta hor topatu gaitezke EH Bilduk edota PSE-EEk egindako proposamenekin. Akordio programatikoak izan beharko lukete.

"HERRITARREN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO BIDE BAT EGITEN ARI GARA, BIDE INTERESGARRIA"



Izagirre, Alvarez eta Lainez Aiurri astekariak landutako kartelean. AIURRI

Hautagaien arteko debatea Aiurri.eus gunean ikusgai

Asteazken arratsaldean Basteron aurrez aurre aritu ziren EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EEko alkategaiak

Erredakzioa ANDOAIN

EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE alderdietako hautagaien arteko debatea burutu zen asteazken arratsaldean, Aiurri astekaria inprentan zegoela. Hurrengo orduetan Marijose Izagirre, Andoni Alvarez eta Maider Lai-

nezen argudioak ikusgai izango dira Aiurri.eus webgunean. Bertatik zabalduko dira, atalez atal, hautagai bakoitzak egindako adierazpenak eta proposamenak. Kanpainan murgilduta, hiru hautagai nagusientzat eguneko ekitaldi nagusia izan zen.



POSTONTZIA

EHBILDU ANDOAIN

Elkartasuna

İnaki Igerategi andoaindarra duela hamabost hilabete atera zen espetxetik bere kondena osorik bete ostean. İnaki suhiltzailea da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lanera itzultzea ukatu dio trikimailu juridiko bat erabiliz. Guztiz

salagarria den egoera bat da. İnaki bere kondena osorik bete ostean, bere bizitza normaltasun osoz berreskuratzeko eskubide osoa du. Erabiltzen ari diren trikimailu hau mendekuan oinarritzen den bigarren kondena bat da. Hori dela eta, EHBildu Donostiako Epaitegiaren aurrean deitu zen elkarretaratzearekin bat agertu zen, eta herritarrei parte hartzera animatu nahi izan zituen. İnaki lanera!

"Bakearen alkate" izendatu zuten Egiguren

Igande eguerdian Gipuzkoako sozialisten buruzagiak Andoaingo Goikoplazara hurbildu ziren, kanpaina ekitaldia egitera. Egiguren, Itxaso eta Lainez izan ziren ekitaldiko protagonista nagusiak



Lainez, Egiguren eta Itxaso Goikoplazako ekitaldiaren amaieran. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Andoaingo PSE-EE alderdiaren ekitaldi nagusian, Denis Itxaso Ahaldun Nagusirako hautagaiak eta Maider Lainez Andoaingo PSE-EEko alkategaiak Jesus Egiguren buruzagi sozialista omendu zuten. Bakearen alde egindako lana aitortu eta, sinbolikoki bada ere, "Bakearen alkatea"ri dagokion makila oparitu zioten. Bertan zen Jesus Egiguren, eta eskertuta eta irribarre batekin jaso zuen sozialisten aitortza. Ordu gutxi ziren Perez Rubalcaba buruzagi sozialista hil zela, eta hura ere Andoaingo ekitaldian gogoan

izan zuten. Egiguren eta Rubalcaba Euskadi eta Espainiako buruzagiek bertan zirenen txalo zaparrada bana jaso zuten.

Igande eguerdiko ekitaldia Maider Lainez sozialisten buruak ireki zuen, hauteskunde programaren ildo nagusiak iragartzeko. Andoaingo gazteen eta adinekoen alde martxan jarri nahi dituen neurrien berri eman zuen. Horrez gain, poza agertu zuen sozialistak Andoainen berriro garaile izan direlako. Hauteskunde Orokorretan lortutako emaitza gogora ekarri zuen, bertan zirenen txalo artean.

Segidan, Denis Itxaso Gipuzkoako Ahaldun Nagusirako hautagaiak hitz egin zuen. Berdintasunaren alde hitz egin zuen lehenik, eta horretarako Realeko nesken ereduua hizpide hartu zuen. Bufanda txuri urdina soinean, Granadatik zuzenean hurbildu zen Goikoplazako ekitaldira.

Segidan, politika orokorrari heldu zion. Perez Rubalcaba gogoan hartuz, Jesus Egigurenen ekarpena aintzat hartu zuen. Hitz gehienak hari eskaini zituen. Aginte makila emanez amaitu zen ekitaldia, taldeko argazkia egitearekin batera.

EAJ-PNVri mezu zuzena

Itxaso zorrotz zuzendu zitzaion EAJri: "Ez gaude Tamayazo gehiago onartzeko prest, alkatetza EH Bilduri ematen amaitzeko. Zenbakiek aukera ematen badute, agindu nahi dugu. Ez diezagutela asanblearioak direla esan. Ez".



Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Umietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbiñe Ugartemendia.

idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.

publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain),

Isabel Salaberria (Umietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus

Whatsapp: 619 163 537

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



Elkarrekin Podemos alderdiaren aurkezpena

Kanpainako ekitaldi nagusia egin zuten Zumea plazan, joan zen asteartean. Alderdiko buruzagi nagusiak alboan izan zituen Tere Santana Andoaingo alkategaia: Lander Martinez Euskadiko idazkari orokorra eta Pilar Garrido Espainiako Diputatua



Tere Santana, Lander Martinez eta Jorge Mourinho Zumea plazako ekitaldian. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Berrogeita hamar lagunetik gora ikusle bildu zituen Zumea plazako ekitaldiak. Agertoki txukuna egokitu zuten, kale giroko dekorazioarekin: Farolak, eserlekuak eta bizikleta bat. Ipinitako eserleku ia guztiak

beteta, "Si se puede!" behin baino gehiagotan oihukatzen zuten. Bitxia zen, grinez eta gogoz beterik zeuden zaletuak adinean gorakoak zirelako. Oso ikuslego heldua hurbildu zen ekitaldira, eta solaskide guztien adierazpenak adi-adi entzun zituz-

ten. Lander Martinez Euskadiko buruzagiak ireki zuen saioa, Udal hauteskunderen eta koalizioaren garrantziaz hitz egiteko. Pilar Garrido Espainiako Diputatuak hartu zuen hitza ondoren. Ikuslegoa, ordea, Andoaingo hautagaia entzuteko gogoz zegoen. Txalo zaparrada jaso zuen, eta euskaraz agurra egin eta gero, adierazpena egiteari ekin zion: "Duela urte batzuk erosotasuna alde batera utzi eta zerbaitek zutitzera eramantzen ginen. Ez geundela ondo jabetu ginen. Behekoak mugituz gero, goikoak eror daitezkeel ikusi genuen". Segidan, hainbat neurri iragarri zituen: "Hauteskunde programa oso indartsua landu dugu".

Hezkuntza eta Osasun publikoa defendatu zituen, Tolosako Asuncion Klinika kontzertatuaren aurka agertuz. Ahalduz bermatzeko, hiritarren ordezkaritza sortzea proposatu zuen.



Kanpainako hitzorduak

Maiatzak 17, ostirala

Andoaingo EH Bildu:

18:30 Kotxe karabana Makaldegitik hasita.

Urnietako EH Bildu:

18:30-20:30 Idiazabal kalean duten egoitza zabalduko dute, informazioa eman eta proposamenak jasotzeko.

Maiatzak 18, larunbata

Urnietako EH Bildu:

11:30-13:30 Egoitza zabalik izango dute, informazioa emateko.

Andoaingo PSE-EE:

11:00 Merkatu plazan izango dira.

Maiatzak 20, astelehena

Andoaingo EAJ-PNV:

18:30 EAJ-PNVren Andoaingo hautagaien topaketa egingo dute Batzokian. Udal hauteskunde demokratikoen 40 urteak (1979-2019) gogoan izango dituzte.

Maiatzak 24, ostirala

Andoaingo EH Bildu:

19:00 Kanpaina itxierako ekitaldia. Juankar Izagirre Gipuzkoako Ahalduen Nagusirako hautagaiaren parte hartzearekin.

Auzobira Andoainen

EH Bildu kanpaina egiten ari da auzoetan. Karrikan, Goikoplazan, Eskola Kalean, Bazkardon, Juanita Alkainen edota Zumea plazan egon dira. Ana Carrere egungo alkateak eta Andoni Alvarez alkategaia parte hartze aktiboa izan dute, aste osoan zehar. Eta baita Barandiaran alkate ohiak eta maiatzaren 26ko Udal hauteskundeetako gainerako hautagaiek ere.



EHILDU





Kaleberria eta Kale Nagusia lotzen dituen pasabidean behera, zinemagintzaren historian aski ezagunak diren pertsonaiekin collage-a margotu dute. AIURRI

Zinemagintzari gorazarre

Correos eta Eskalduna mendigoizale taldearen egoitzen inguruko pareta zuriak horma irudi bilakatu dituzte. Eduardo Arresegor, Marga Oiartzun eta Juanan Lazkano herriko artistak margotze lanetan aritu dira, Andoaingo Udalaren enkarguz

Xabier Lasa ANDOAIN

Zinemaren mundua da eta historia oparoa horma irudi bilakatzeko ari dira, egun hauetan. Adin batetik aurrerakoentzat aski ezaguna baita garai batean Iparragirre zinema Kale Nagusian egon zela. Amaitzearen artean sorta gonbite modukoa da, zazpigarren artea deritzonari egindakoa. Kaleberrira iristeko pasabide estu horretatik igarotzerakoan oinezkoa zine-

maren unibertsoan murgilduko da. Erreferentziak askotxo dira, ia ia guztiak unibertsalak. Hormaz horma, zinearen historian famatu egin diren aktore eta zuzendariak ageri dira (Alfred Hitchcock, Mariyn Monroe, Pilar Rodriguez...). Baita pertsonaia ezagunak (ET, Ameli, Charl...) eta filmen jakin batzuen eszenak ere (Leku bat munduan, Txoriak...). Bertatik igarotzen denarentzat, bidean doala arna-

sa hartu eta irudien bitartez iruditeria kolektiboan murgildu daiteke. Arresegorrek, Oiartzunek eta Lazkanok hainbat egunetan zehar landu duten arte egitasmoa da. Lanekin amaitzeko horma irudi bakarra lantzea falta zaie, hurrengo egunetan amaituko dutena.

Iparragirre zineman 70eko hamarkada arte zabalik izan zen. Kale Nagusian sarbide nagusia zuena.



Eduardo Arresegor, Marga Oiartzun eta Juanan Lazkano margolari lanetan aritu dira, Udalaren enkarguz. AIURRI

Historia ardatz hartuta



Film klasikoei egindako aipamenak askotxo dira. AIURRI



Iparragirre zinemaren sarbide nagusia Kale Nagusian zegoen. UDAL ARTXIBOA



La Salle Berrozpe ikastetxeko komunitatea ordezkatzan duten eragileak, ereserkiaren egileekin batera. AIURRI

La Salle Berrozperen ereserkia aurkeztu dute

La Salle-Berrozpe ikastetxearen ereserkia aurkeztu berri dute. Joxe Mari Oiartzabal da doinuaren sortzailea eta Joxeramon Berrondo hitzen egilea. Kaletxikiko jaietan estreinatuko dute ereserki berria

Xabier Lasa ANDOAIN

“La Salle-Berrozperi goraipamen edo omenaldia egin nahi dio Gora Kaletxiki txarangak kontzertu batekin, era horretan”, iragarpen hori egin zuten ereserkiaren egileek. Ikastetxean egin zuten aurkezpen ekitaldia, hainbat irakasle, ikasle eta gu-

rasoen parte hartzearekin. Ikastetxeko gerentea den Jon Iartzak adierazi zuenez “polita da kanta, eta ikastetxearen komunitatea osatzen dugun kide guztiak pozik egoteko moduan gara”.

Berrondok adierazi zuenez, ikastetxearenganako aitortzak eta eskertzak bultzatuta jokatu

dute: “Aitortza, ikastetxe honek baloreen jartzen laguntzen duelako Andoaingo herria, ez bakarrik hezkuntza eskaintza 2 urtetik 23 urte bitarteko ikasleei egiten dielako, baita beste hainbat balore batzuk lantzen dituelako ere.. Balore anitz garrantzitsuak, ekimen ezberdinen

bitartez: Izartxo aisaldi taldea, Kanpezuko kanpaldia edota familia eguna, ikastetxeko komunitate osoa lotzeko ezinbesteko ekitaldia bihurtu dena”.

Aitortuz hasi, eta eskertuz jarraitu zuen Berrondok: “Musikari bezala, Gora Kale Txiki txaranga modura La Salle-Berrozperekin oso eskertuta sentitzen gara. Izan ere, gure txaranga Berrozperen gerizpean sortu zen duela 16 urte. Eta geroztik ere ikastetxea beti azaldu zaigu eskuzabal, beti eman dizkigu erraztasunak. Azken urte honetan, gainera, larri ibili gara, bapatean entseatzeko egoitzarik geratu garelako. Baina ikastetxera hurbildu bezain pronto, bere arduradunek ateak ireki dizkigute. Holako jarrera topatzen den lekuan, nola ez sentitu eskertuta!”.

Musika xehetasunak

Berrondok eta Oiartzabalek doinuaren inguruko xehetasunak eskaini zituzten: “Ereserkia modu menorrean hasten da, musika-rientzat gertutasuna eta goxotasuna adierazten du era horrek. Gero, lehenbiziko estrofan modu mayorrera pasatzen gara, alaitasuna eta indarra transmititu nahian. Eta segidan, modu menorrean itzultzen da berriro. Azkenik, bigarren estrofaren eskutik, amaiera indartsua ematen zaio, esanez gustura gaudela ikastetxean”.

Letra xumea daukala doinuak aitortu zuen Berrondok. “Ereserki batek xumea behar du izan, bestela buruan eta oroimenean ez da geratzen. Hitz eta esaldi ximpleak bildu behar dira, baina atzean esannahi handia daukatenak”.

Herriari, ikastetxeari eta baloreei eskainitako hitza

Andoaingo herriak badauka altxorra, ikasleek hezitzeko estalpe ederra. La Salle Berrozpe da baloreak lantzeko eraikia dena. Betidanik eskolan pertsonak hezitzen, bakoitzari lagunduz arreta eskeintzen. Familia ederra dugu guk osatzen, La Salle Berrozpen gure eskola!

EGILEEK AITORTZA ETA ESKER ONA ADIERAZI NAHI DIOTE ANDOAINGO IKASTETXEARI

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hari Orkestra Basteron ikusteko aukera

Mikel Urdangarin biolenjole trebatua Andoainen ikusteko aukera izango da, ostiral honetan, Kamerata Oiasso hari orkestrarekin batera. Taldeak Inglaterrako konposatzaileen obrekin osatuko du emanaldia

Xabier Lasa ANDOAIN

Kamerata Oiasso hari-orkestrak kontzertua eskainiko du Basteron, ostiral honetan iluntzeko 20:00tan hasita. Taldeko Mikel Urdangarin Castro biolin joleak adierazi duenez, kontzertu atsegina eta goxoa izango da: “Ez da zertan musika klasikoan aditua izan beharrik gozatzeko”. **Zeintzuk osatzen duzue Kamerata Oiasso taldea?**

Hamabost musikari profesionalak eta lau instrumentuek osatzen dugu taldea, gehienak musika irakasleak gara. Zortzi biolin joleak gara, hiru biola joleak, beste hiru biolontxelo joleak eta kontrabaxu bat. Bizpahiru kide kenduta, Irun aldekoak dira gehienak. Hortik dator izena. Orain lau urte sortu zen taldea, premia handi batek bultzatuta: musikariak garenok, irakasteaz gain musika jotzeko txoratzen egoten garelako. Egonkortu egin da taldea, oso giro polita dago gure artean; gutako bakoitzak gozatu egiten du tokatzen zaiona interpretatuz, eta esango nuke jendaurreko emanaldietan, entzulea, musikarien artean dagoen konfiantzaz eta konplizitateaz ohartzen dela.

Zer eskainiko duzue Basteron?

Inglaterrako lau konposatzaileren (H. Purcell, W. Walton, E. Elgar eta G. Holst) piezekin osatuko dugu ordubeteko emanaldia. Sortzaile bakoitzari hamabost bat minutu eskainiko dizkiogu, bata bestearen atzetik pieza txikiak interpretatuz. Purcell barrokoa da; Walton lauetatik bereziena izango da, XX. mendearekin lotura gehiena duena, eta zuzenean apenas entzun daitekeena; Elgar, goxoa, intimoa eta sentibera da, bera entzunez begiak itxi eta sentimenduak pilatu egiten zaizkizu; eta azkenik, Holst. Alaia eta energikoa, ezin egokiagoa kontzertua festa giroan amaitzeko. Azken



Mikel Urdangarin Castro Andoaingo musikaria. AIURRI

batean, intentsitatean in crescendo modukoa izango da kontzertua. Hori guztiaz gain, ezusteko txiki bat prestatu dugu. **Musika klasikoa hari-orkestra batek interpretatuta. Nola uxatuko zenituzke musika horrekiko baten batek izan ditzakeen aurreiritziak?** Ez da zertan musika klasikoan aditua izan behar. Nahikoa da eserlekuan eseri, eta gozatzeko prestatzea. Orain arte eman ditugun emanaldietara publiko zabala hurbildu zaigu, eta oso gustura egon dira. **Berezitasun modura, kontzertu pedagogikoa eskainiko duzue aurretik.**

Bai, ordubete lehenago. Musika ikasleentzat bereziki bideratuko da, baina gainerako publikoarentzat ere irekia dago. Taldeko bost musikarik lau konposatzaileen pieza zati batzuk joko dituzte, eta niri aurkezpen lanak egitea egokituko zait. Instrumentuen eta abestien inguruko azalpen didaktikoak emango ditut.

Musikari lotu-lotua jarraitzen duzu...

Musika irakaslea naiz ogibidez. Egun, Donostia, Azkoitia eta Etxarri Aranatzeko Udal musika eskoletako irakaslea naiz.

Biolin eta biola irakaslea lehenbizikoan, eta biolin irakaslea beste bietan. Musika jole bezala, Kamerata Oiassorekin ez ezik, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin eta Et Incarnatus orkestrarekin aritzen naiz. Nahiko finkoak dira ekimen horiek, eta gero, tarteka, handik eta hemendik kolaborazioak egiteko hots egiten didate; libre harapatzen banaute, bada, aurrea!

Atzean utzi zenituen Gozo-Gozo taldearekin dantzaldi giroko emanaldiak.

Oso urte politak eta gozagarriak izan ziren Gozo-Gozorekin egin dako urteak, baina denborak eta agendak ez zidan leku guztietara iristeko ematen, eta penaz utzi behar izan nuen. Et Incarnatus orkestrak euskal erromeria kutsuko dantzaldiak eta musika klasikoa uztartzeko aukera ematen du. Azken aldian, gainera, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskal abeslariekin (Maixa Lizarribar, Alex Sardui, Izaro, Gorka Sarriegi, Petti, Niko Etxart...) kontzertu gogoangarrietan parte hartzea egokitu izan zait. Luxu bat, edozein musika joleentzat.



Calleja 2016ko Kaletxikiko jaietan kantari. AIURRI

Eragiyok abesbatza Goiburuko San Esteban ermitan, zuzenean

Antonio Calleja eskarmentu handiko kantari baritonoa da, Easo abesbatzako kide dena

Xabier Lasa ANDOAIN

Berriki, abesbatza inguruko zenbait adiskiderekina batera Eragiyok abesbatza sortu du. Goiburuko San Esteban ermitan eskainiko dute lehenbiziko kontzertua, 20:00tan hasita.

Sortu berria da Eragiyok abesbatza.

Hala da, eta Goiburukoa estreinaldia izango da. Errenteriako Gabon kanten lehiaketara aurkezteko osatu genuen taldea. Baina, ofizialki, jendaurreko lehenbiziko kontzertua Goiburun eskainiko dugu.

Hamaika-hamabi kantarik osatzen duzue.

Bi baju, hiru baritono, bi edo hiru bigarongo tenore eta hiru lehendabiziko tenore gara. Nork bere funtzioa betetzen du taldean; baten batek kale egiten badu, akabo!

Formalki gurea kamerako abesbatza da, baina geure burua Otxotetzat daukagu. Elkarrekin makina bat alditan kantatuta-koak gara guztiak, batzuk Easo abesbatzako abeslariak baikara, eta besteak bertan aritu direnak. Eneko Amundarain gaztea gure zuzendaria da. Euskal Herriko eta Errusiako folklorea bereziki gogoko dugu. Talde sendoa osatzen dugu. Formatu txikiko kontzertuak eskaintzeko sortu gara, eta Goiburukoa egoki-egokia da guretzat.

Errepertorioa nondik joango den asma dezakegu hortaz...

Bai. Euskaldunak izango dira abesti ia gehienak, eta hiru bat errusiarrak: *Otche Nasch*, *Agur*

Maria; Otoia /Zatoz; Maite, eguzki eder; Nere etxea; Maitemina; Elurra; Boga boga; eta, Nere maitiarentzat. Zerrenda irakurrita, batek baino gehiagok galdetuko zion bere buruari ea non diren beste kanta errusiarrak, *Otche Nasch* delakoz gain. Bada, *Maitemina* eta *Elurra* errusiarrak dira jatorriz! Euskaldunok, doinu horiek geure egin eta asmatutako letrak erantsi dizkiogu. Konparazio batera, Egan taldeak *Behin batian Loiolan* kantarekin egin zuen bezala. Gauza kuriosoa da, zeren eta *Elurra* kantaren jatorrizko bertsioak *Hamabi lapur* du izenburua, eta hitzak ezin tragikoagoak ditu: lapur kuadrila baten ibileren kronika egiten dute, lapurretak eta bortxaketak tarteko. Euskal bertsioa, ordea, sehaskako kanta izateko moldatuta dago.

Bi abesbatzetan kantari, denbora nondik ateratzen duzu?

Nondik edo handik! Ahal den modura. Kantagintza gogoko dut eta ezin utzi!

Nondik nora sortu zitzaizun abes- teko zaletasuna?

Umetan musika eskolan ibili nintzen, baina oinarrizko ikasketekin geratu nintzen, solfeo-ko eta kantuko gutxieneko nozioekin. 1991ean, Amaia Zipitria piano joleak tentatu egin ninduen, ezanez Donostian Ereski Abesbatzan kantariak behar zituztela. Probatu nuen, eta hurrengo urterako jada Easo abesbatza kidea nintzen. Hor jarraitzen dut oraindik...



Zipreko Ligan berriki sartu du lehen gola, amorrus eta pozez ospatu zuena. AELIMASSOL

Zipreko Kopa altxa nahi du Jon Gaztañagak

JON GAZTAÑAGA AEL LIMASSOL FUTBOL TALDEKO JOKALARI ANDOAINDARRA

FUTBOLA Zipren ere denboraldia amaitzen ari da. Ligan laugarren sailkatuta eta Kopako finala ziurtatuta, datorren denboraldian European arituko dira

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Kopako finala ate joka duzue, Jon. Urteko hitzordu nagusia zuentzat Bai, datorren asteazkenean APOEL taldearen aurka jokatuko dugu finala. Ligan laugarren sailkatu gara, eta orain finalera begira jarrita gaude. Denboraldiaren hasieran klubaren helburu nagusia Euro-

pako txapelketara itzultzea zen, eta hori dagoeneko ziurtatu dugu. Klubak, ordea, hogeita hamar urte egin ditu Kopa irabazi gabe eta une honetan gu guztion ametsa Kopa hori altxatzea da.

Zail al dago Kopako finala irabaztea? Zein da zure aurreikuspena partida bakar horri begira?

APOEL azken urteetako talde onena da, Liga maiz irabazten ari dena. Baina gu bolada onean gaude. Denboraldiari bikain ekin genion, eta gero hiru hilabetez ez ginen oso ondo ibili. Orain, ordea, taldeak une gozoa bizi du. Taldean konfiantza berreskuratu dugu. Une onean iritsiko gara finalera. Gure au-

kerak izango ditugula iruditzen zait, nahiz eta Apoel aurrekontu aldetik talde handiagoa izan, eta jokalaria izenez garrantzitsuagoa izan.

Jokatu aurretik partida orekatu samar dago.

Nolakoa da hango jokoa, eta Liga?

Futbola da, eta arauak unibertsalak dira. Egia da, Espainiako Ligarekin alderatuta, taktikoki aldeak badaudela. Hama bi taldek osatzen dugu Liga, eta lehen zortziren artean maila antzekoa dago. Espainiako Liga ezberdinen parekoa. Beste lau pabost talde daude, maila apalagokoak.

Maiatzaren 22ko finalak maila oneko partida izateko osagaiak izango ditu.

Taldeei eta jokalariei erreparatuta maila ona antzeman daiteke. APOELen maila handiagoa izan daiteke baina gure taldea une honetan konfiantzaz beterik dago. Ez gaude amore emateko prest, eta ea Kopa Limassolera ekartzea lortzen dugun. Denboraldiko helburuetako bat lortzea litzatekeelako. Gutxi falta da denboraldia amaitzeko eta jokalaria, zaletu eta klubarentzat pozgarria litzateke.

Zu eta zure familia ondo al zaudete Zipre aldean?

Bai, oso gustura gaude. Klima aldetik, oso klima egokia da. Neguak bi hilabete irauten du baina ez da oso gogorra ere. Hiria ondo dago, oso turistikoa da eta zerbitzu asko eskaintzen ditu. Eskaintzen ari naizen futbol mailari dagokionez ere pozik nago. Hirurak pozik gaude. Egonaldia ingelesa ikasteko baliatzen ari gara.

Denboraldia amaitzeaz dago. Berton jarraitzeko asmoa duzu? Etor-kizunari buruz pentsatzen hasteko unea al da?

Zortzi egun hauetan jarrita daukat gogo. Maiatzaren 22an izango da finala, eta pentsamenduak partida horri begira jarrita daude. Beste bi denboralditarako hitzarmena daukat, baina jakina da futboleko inoiz ezin dela ezer egintzat eman. Realean hitzarmena nuenean ere, azken denboraldia Tarra-gonan egin nuen.

Esan bezala, Zipren beste bi urtez aritzeko lan hitzarmena sinatu nuen. Denboraldiaren amaieran ikusiko dugu.

Distantzia tarteko, faltan botatzen al dituzu Andoain eta etxekoak?

Gustura nago, emaztea eta semea nirekin daudelako. Hala ere familia, herria, lagunak, Donostia,... faltan botatzen ditut. Oso gustura gaude baina esaerak dioten bezala, etxean bezala inon ez.

Lagunak bisitan joan zitzaizkizun duela gutxi, eta gol polita egin zenuen.

Kasualitatea izan zen. Urteak ziren gola sartu gabe, eta poz handia izan zen lagunentzat eta baita niretzat ere.

Ospakizun ederra denentzat.

Halaxe da, baita etxekoentzat ere. Emaztea eta semea nirekin ditut hemen eta haientzat ere poz handia izan zen. Nigan sinesten duten guztiei eta urteotan babestu nauten guztiei eskaini nien gola.

Zorte on finalean, eta ondo joan dadila partida Jon.

Eskerrik asko, ea Kopa altxatzea lortzen dugun.

"LASTER BUKATUKO DA DENBORALDIA. KOPA IRABAZTEA OSO POZGARRIA LITZATEKE"



andoainDARRA
euskaraz



Urnieta KE eskubaloia taldea. UKE

Zaletuek Urnieta KE taldea animatzeko busa antolatu dute

ESKUBALOIA Jokatu dituen igoerako partida guztiak irabazi dituen talde bakarra da urnietarra

Erredakzioa URNIETA

Hiru partida, hiru garaipen, eta laugarrena nahi dute. Bilbon dute partida eta ez dira bakarrik egongo, zaletuek animatzera joateko autobusa antolatu baitute.

ASTEBURUKO PARTIDA

20:00 Eskolapios-Urnieta / Lar, 19

SAIKAPENA

1 Urnieta **6 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

20:00 Eskolapios-Urnieta / Lar, 19

Partida garrantzitsuak

HERRIARTEKOA

Palazko Herriartekoan, joanekoan Andoain 2-0 nagusitu zitzaion Erreteruari (35-22 larruzko paletan eta 40-35 pala motzean). Itzulerako partidak ostegun honetan jokatuko dira Erreterian, 20:30ean hasita.

Eskuz, Herriartekoan, Andoain herriak Azkoitia aurkari zaila hartuko du Arrate pilotalekuan. 20:00tan hasiko da lehia.



AJURRI

Iturzaeta memoriala asteburuan abiatuko da neskentzat



AJURRI

Asteburu honetan nesken eta mutilen partidak jokatuko dira, Sorabillan. Mutilen kasuan, aurreko asteburuan euriagatik jokatu ez zirenen txanda izango da. Nesken mailan ligaxka egingo da, eta multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuak finalaurretara sailkatuko dira. Hauexek aurtengo bikoteak:

A Taldea:

1. Irati-Itsasne.
2. Neide-Enara.
3. Kristina-Naiara.
4. Garbiñe-Aloña.

B Taldea:

1. Alaine-Elixane.
2. Arantxa-Itziar.
3. Rakel-Garazi.
4. Arantxa-Amaia.

Euskaldunak eta Urnietak agur esan diote denboraldiari

EMAITZAK. 30. JARDUNALDIA

Ostadar-Euskalduna	4-1
Urnieta-Billabona	1-2



Utzi Oiarbide irabazlea. SANTAKRUZ

Compak Sporting erako plater tiraketa, Santa Kruzen eskutik

PLATER TIRAKETA Arkalen antolatu zuten Antonio Gabirondoren omenezko plater tiraketa saioa

Erredakzioa URNIETA

Santa Krutz jaien harira, Antonio Gabirondo izeneko memoria antolatzen du Urnietako Santa Kruz elkarteak. Herri mailako txapelketa da, Compak Sporting erara jokatzeko dena. Arkalen lehiarako prest agertu zirenen artean, haxe sailkapena:

1. Urtzi Oiarbide	50 plater
2. Iraitz Oiarbide	48 plater
3. Mikel Zurutuza	47 plater
4. Jexux Urdangarin	47 plater
5. Aritz Legazkue	45 plater
6. Xabi Iruretagoiena	44 plater
7. Unai Sarasola	43 plater
8. Jose Luis Toledotxiki	42 plater
9. Lazaro Oiarbide	42 plater
10. Iñigo Gabirondo	41 platerw



Parte hartzaile guztiek taldeko argazkia atera zuten. SANTAKRUZ

Herri kirolarien bilkura

Urtero bezala, aurtengo udaberrian ere Euskal Herri osoko Herri Kirolariak urteroko bazkaria egin zuten Urnietako Eula sagardotegian. Juan Iguaranek antolatutako ekitaldia da herri kirolariak urtean zehar elkartzeko izaten duten aukera bakarra. Esker onez, eta giro atseginean joan zen aurtengo aurtengo juntadizoa.



IBON ERRAZU

Izar berria jaio da kirolarien konstelazioan

FUTBOLA Egun hauetan, emakumezkoen kirolean ez dago Nahikari Garcia urnietarraren parekorik. Ikusmin handia pizten ari da, Kopako finalean garaipenaren gola sartu zuelako eta indar biziz hazten ari den futboleko izar bilakatu delako

Erredakzioa URNIETA

De Tacon Daily hedabideari haxe da egin zizkion adierazpenak, prentsari eskainitako gunean: "Hunkigarria izan da, ez daukat hitz askorik. Ez dakit zer gehiago esan daitekeen. Ikaragarria izan da, gure zaletuak animoak emanez, guregan sinetsi izana, borroka egiten jarraitzea,... lortutako gola horren guztiaren ondorio izan da. Aste osoa generamatzen posible zela sinetsiz, eta neuk esanda nuen Koparekin feeling berezia genuela. Frogatuta geratu da, gaurkoan. Partida oso zaila zen, Atletico Madrid talde bikaina delako. Zaletuen animoa, bi taldeen aldetik, ikusgarria izan da. Denen parte



Nahikari Garcia, Kopako finalean hedabideei eskainitako gunean.

hartzearekin emakumezkoen futbolarantz egun historikoa izan da. Eta, bereziki, esker ona

Donostiatik etorri den jendetzari. Batzuk hamabi orduko bidaia luzea egin dute autobusean, beste batzuk hegazkinean,... bihotz bihotzez eskerrak eman behar dizkiegu. Une gogorak izan dira, eta une horietan euren babesak gertutik sentitu dugu.

Espainiako selekzioaren deialdiaren harira, ikusteko dago zein izango den aukeratuko duten taldea. Argi dago oso urte berezia izaten ari dela niretzat, une berezi askorekin. Sufritu dugu ere, baina finalarekin alde ilun hori guztia ahaztu egiten da. Etorkizunari buruz, gaur gozatzea dagokigu eta datozen egunetan argituko dira hainbat kontu".

Padle jokalaria gazteak

PADLE Haritz Goikoetxea eta Unai Barberena infantil mailako bikotea Gipuzkoako padel eskolarteko Zirkuituko seigarren eta azken proban finalera iritsi ziren, Donostian jokatu zena.

Erredakzioa URNIETA

Bi urnietar gazteak Lasarte-Oriako Padelo elkartearen kide dira, eta joan zen larunbatean Riberas Donostiako auzuneko instalakuntzatan oso txukun aritu ziren. Futbola eta padela, izugarri maite dituzte bi kirol jarduerak dira. Larunbat eguerdian, Urnietan ligako azken partida jokatu ostean eta kasik ere bazkaldu gabe, arratsaldeko 15:00etan padle txapelketari hasiera eman zioten. Bigarren zerrenda-buru gisa eman zioten hasiera partidari, eta zegozkien partida guztiak irabazi ostean, finalera iritsi ziren. Oso berdindua eta lehia handiko finala izan zen. Urduritasunak pasada txarra egin zien, eta lehiakideen



Goikoetxea eta Barberena Urnietako gazteak. IDOIA GONZALEZ

maila altua kontuan hartuta, ondo merezitako bigarren postua lortu zuten. Txapelkun-orde izan ziren, beraz, Donostian jokatu-tako txapelketan.

Goikoetxea-Barberena bikoteak zirkuitua osatu duten sei txapelketak jokatu ditu, urte osoko rankingean lehen postuetan amaituz.

Esperientzia ahaztezina lagunentzat



Nahikari eta lagunak pozarren partidaren amaieran. NAHIKARIEN LAGUNAK

Zorionak Nahikari! "Bere hainbat lagun Granadara hurbildu ginen, berarentzat hain garrantzitsua zen partida ikustera. Zorionik beroenak eman nahi dizkiogu lerro hauen bitartez, lortu duen garaipenagatik".



Urnietarrek 'Nahikari Peña' ziruditen. NAHIKARIEN LAGUNAK

Ostegun honetan omenaldia San Juan plazan, arratsaldeko 17:30ean hasita, urnietarrek ongi-etorria egingo diote Realeko nesken taldeko jokalariei. Antolatzaileen eskariz, hurbiltzen denari Realaren kamisetarekin hurbiltzeko eskaera egin diote.



Urnietarrek 'Nahikari Peña' ziruditen. NAHIKARIEN LAGUNAK

Ospakizuna Izaro, Olatz, Eider, Irati, Nagore eta Lorea koadrilako lagunak Granadan bertan ikusi zuten finala. Haiekin batera Nahikari eta Ane Urnietako lagunak ere gertu ibili ziren. Garaipen historikoaren lekuko izan ziren guztiak.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 16

ANDOAIN Plenoa

Udal agintaldiko azken plenoa.
19:00, *Udaletxea*.

OSTIRALA 17

ANDOAIN Erakusketa

"Emeek emana" argazki erakusketa
ikusteko azken eguna.
Ohiko ordutegia, Bastero.

ANDOAIN Musika

Kamerata Oiasso hari musika
kontzertua. 19:00tan kontzertu
pedagogikoa eskainiko dute, dohainik.
Ondoren emanaldi nagusia.
20:00, *Bastero*. 10 euro.

ANDOAIN Musika

Eragiyok gizon abesbatzaren
zuzeneko emanaldia.
20:00, *San Esteban ermita*. 3 euro.

LARUNBATA 18

ANDOAIN Biltzar Nagusia

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak
urteko biltzar nagusia deitu du.
10:30, *Bastero*.

ANDOAIN Maiatzeko azoka

Trianaren eskutik, maiatzeko azokara
Gipuzkoa osoko flamenko taldeak
hurbilduko dira.
Egun osoan zehar, Nafarroa plaza.

IGANDEA 19

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Hai, ametsen arrantzalea, adin
guztientzat.
17:00, *Bastero*.

ASTELEHENA 20

ANDOAIN Ate irekiera

Galardi Udal Haur Eskolan
matrikulatzeko epea zabalduko da,
maiatzaren 20tik ekainaren 1era.
Izen-ematea Basteron (10:00-13:00;
16:30-19:30).
Ate irekierak antolatuta dituzte
maiatzaren 20rako eta 27rako.
16:30, 17:30, *Galardi*.



Erosleak Danenan, Amama Klaudian, Txitibarren, Txalakan, Ondarretan, Ollokin,
Hirun edo Aterpen afaria irabazteko aukera izango du.

ANDOAIN Zozketa Andoain Txartelako erabiltzaile direnentzat

Salkin merkatarien elkarteak ekimen betean dago, eta egun hauetarako kanpaina
berria sustatzen ari da. Maiatzaren 31 bitarte herrian erosketa eginez gero,
Erosleak Danenan, Amama Klaudian, Txitibarren, Txalakan, Ondarretan, Ollokin,
Hirun edo Aterpen afaria irabazteko aukera izango du.
Maiatzaren 31 bitarte Salkin elkarteak merkatalguneetan.

OSTIRALA 24

URNIETA Pailazoen emanaldia

Pirritx, Porrotx eta Marimotots
pailazoen "Musua" ikuskizuna.
Sarrerak Urnietako BKN eta
Andoingo BKNn eta Ernaitzan salgai,
7 eurotan.
17:30, *Egapeko jolastoki estalia*.

ANDOAIN Dantza emanaldia

Hogar Extremeñoen kultur astean
dantza emanaldia: Zuen, Donostiako
Etxe extremeñoa eta Urki.
20:00, *Bastero*.

LARUNBATA 25

ANDOAIN Irekiera ekitaldia

Extremadurako kultur astearen
irekiera, ordezkariak ongi etorria
emanez. Arratsaldean, mahai jokoak.
12:30, *Hogar Extremeño*.

URNIETA Musika

Zero Sette akordeoi orkestraren
emanaldia.
19:30, *Zubitxo plaza*.

ANDOAIN Auzo bazkaria

Etxeberrieta auzoan jaiotako
bazkaria.
14:30 *Kotoi elkarteak*. 20 euro.

IGANDEA 26

ESKUALDEA Hauteskundeak

Udal hauteskundeak, alkatea eta
zinegotziak aukeratzeko.
Jarraipena: Aiurri.eus webgunea.

ASTEARTEA 28

ANDOAIN Solasaldia

Javier Ibarrolaren Pound liburua
aztergai izango dute.
19:00, *Basteroko bilera gela*.

OSTIRALA 31

URNIETA Gazte Festak

Asteburu osoan zehar ekitaldi ugari
Urnietan.
Maiatzak 31-ekainak 2.

LARUNBATA 1

URNIETA Dantza

Urnietako Dantzan, Egape DTren eskutik.
Egun osoan zehar.

URNIETA Lehiaketa

Argazki digital rallya, Udaren eskutik.
Oinarriak urnietak.eus webgunean.
09:30, *Lekaio*.


ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Gracias a Dios**

Larunbata, 18:
19:30, 22:00.
Igandea, 19:
19:30.
Astelehena, 20:
19:30; 22:00.

La pequeña Suiza

Larunbata, 25:
19:30, 22:00.
Igandea, 26: 19:30.
Astelehena, 27:
19:30; 22:00.
Terra Willy
Lar, 25: 17:00.
Ig, 26: 17:00.



SINOPSIS

**Gracias a Dios**

Zuz.: Francoi Ozon. **Herr.:** Frantzia (2019). **Generoa:** Drama, erlijioa,
sexu gehiegikeriak. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Aktoreak:** Melvil
Poupaud, Denis Menochet, Swann Arlaud. **Iraupena:** 137 minutu.

Benetako gertaeretan oinarrituta

Alexandre ezkondu da, eta
seme-alaben gurasoa da.
Lyonen bizi da, eta ezustekoa
jaso du: Haurra zela sexu
gehiagikeriak eragin zizkion
apaizak haurrekin lan egiten

jarraitzen duela. Haren aurka
joko du, eta berarekin bat
egingo dute sexu gehiegikeriak
pairatu zituzten Françoisen eta
Emmanuelek. Ekimenak
higadurak sortuko ditu.

AFARITARA GOAZI!!

Maiatzaren 15etik 31ra

Afarien zozketa Andoain
erosten dutenen artean

TRUKA EZAZU ZURE SARIA 2019-06-30 A BAINO LEHEN




ZORION AGURRAK



URNIETA
Daniela Oyarbide
Danielak 9 urte beteko ditu ekainaren 1ean. Zorionak etxeko guztien partez. Maite zaitugu!



ANDOAIN
Oinatz Zatarain
Oinatzek 8 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak eta muxu handiak etxeko guztien partetik.



ANDOAIN
Oier
Gure txikiak maiatzaren 11an 7 urte egin zituen. Jarraitu zaren bezala izaten, maitegarria.



ANDOAIN
Guerau Aira Jandula
Maiatzaren 16an 10 urte beteko ditu gure pottokoak!!! ZORIONAK etxekoen eskutik asko. Maite zaitugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 18 eta igandea 19
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 592 415. Andoain.

URNIETA
Larunbata 18 eta igandea 19
ETXEBESTE: Elkano, 9. Behea.
943 552 087. Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

Pirritx pailazoa osatuta, Urnietan arituko da

Abenduaz geroztik taulaganetik kanpo egon eta gero, Urnietako saioan Porrotx eta Marimotots pailazoeekin batera arituko da. 'Musua' ikuskizun berria aurkeztera datoz, datorren maiatzaren 24an. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da, Egapeko jolastoki estalian



Marimotots, Pirritx eta Porrotx pailazoak urtero-urtero etortzen dira Urnietara. AIURRI

Erredakzioa URNIETA
"Aiora Zulaika "Pirritx" pailazoa osatu da!", albiste bikaina iritsi berri da Aiurriko erredakziora. Gauzak horrela, datorren asteazkeneko ikuskizunean Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta lagunak zuzenean ikusteko aukera izango dugu. Hainbat tokitan taula gainera igo ezinik egon da, gaixotasun bat tarteko. Baina osatu da, eta Urnietara hurbiltzen diren haurrek Pirritx ikusiz gozatzeko aukera izango dute. 17:30ean hasiko da saioa, Egape ikastolako jolastoki estalian.

Musua ikuskizunaren sinopsia

"Mundua mundu denetik, eguzkia biraka ari da eta gu haren inguruan. Eta dei egiten dio lurrari esnatzeko, azaleko zomorroak astindu eta moztortzeko. Mundua mundu denetik, hartzak kobazulora sartzen dira neguko solstizioetan eta kilkerak kanpora atera udakoetan. Eta guk dantzatu eta kantatu egiten dugu negu zein uda, egin arren euria, atera arren eguzkia, apurtu arren zeruan tximista... Ihauterietan, San Joanetan, Gabonetan ohitura zaharrak mantendu eta berriak sortzera jolasten dugu. Munduak biraka segi dezan. Eguzkiak ez ezik, musuek ere biraka jartzen dutelako mundua. Eta musuek biraka jartzen gaituztelako gu. Eta zu?" Leire Bilbao.

MAIATZAK 24, OSTIRALA

17:30 **URNIETA**

Egape ikastolako jolastoki estalia

AURRE SALMENTA HERNANI

- Leokadisti. Urbieta kalea, 6.

URNIETA

- 2KN okindegia. M.Yurramendi 2.

ANDOAIN

- Aiurri. Arantzibia plaza.
- Ernaitza liburudenda. Zumea kalea.

SALMENTA EGUNEAN BERTAN

16:30. Egape ikastolako jolastokiaren atarian.

Antolatzaile

AIURRI

Loguntzaile

San Isidro eguneko bertso sorta

San Isidro nekazarien egun handia ospatu zuten Urnietan, asteazkenean. 11:00etan meza egin zuten San Miguel elizan, Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariekin batera. Ondoren, Lekaion, hamaiketako eta bertso saiorako txanda iritsi zen

Xabier Lasa URNIETA

Hamaiketan meza egin zuten San Miguel elizan, Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariekin batera. Ondoren, Lekaion hamaiketako eta bertso saiorako txanda luzeagoa iritsi zen. Azkenik, denak bazkaritara abiatu ziren Oianumera.

Agin Laburu:

Hona etortzen gerala Beñat badituk bizpahiru urte. Patxiren partez eskuminak e(re) eman behar genituzke, eta gure meza txiki hontan bentaja degu, ez uste. Hemen guztiak eseri eta altxa beharrik ez dute.



Laburu eta Gaztelumendi. AIURRI

Beñat Gaztelumendi:

Esertzen eta jeikitzen hemen eztegu izango lanik

Etzazuela pentsa mezetan Sarri ibiltzen geranik Halare lana egin dezagun biok abilak izanik apaizarena zuk egintzazu monagiluarena nik.

Agin Laburu:

Monagiluan papela ere ez zait gaizki geratzen, ño! Baina behin etorri geranean, Beñat, Urnietaraino. Meza, apaiza, baserritarrak protagonistak gaurdaino. Monagiluana hobeto egingo dek Baserritarran baino.

Beñat Gaztelumendi:

Nere garaian egina nago

Agin, baserriko lana. Baina gerora egin nuenez Donostia aldeko plana. Monagilo ta apaizarena egin degu erdi bana ta alkateak egin dezake Espiritu Santuana.

Agin Laburu:

Ederra bota dek orain, Beñat, espirituan faltan. Alkatea gure atzean lanetik ez dabil bakan, bilera ba omen du ta hemen daukagu nolatan. Bera hor dago baino nork daki espiritua non daukan.

Beñat Gaztelumendi:

Beti ibiltzen da espiritua jartzeko borondatean. Ez da errexia izan beharra alkate hemen ta alkate han. Beti arduren, beti hitzaldien ta beti kezken menpean. Hiru bilera egiten ditu bilera bakar batean.

Agin Laburu:

Hemen jendia bildu zaigunez ez gerta eskuin aldera. Zeozer entzun nahian ere bildu dira mahaigainera.

Zu ta biok mikrofonotik alkateaz ari gara. Irudi honek ez al dirudi kanpainaren hasiera?

Beñat Gaztelumendi:

Kanpainarako ez da izango horren hizlari abilik. Bakar-bakarrrik atzian falta lema txiki bat zintzilik. Hamaiketako hontan pasa da gauza berezi bat soilik: bertsolariak kantuan baina politikoa ixilik.

Agin L.: Politikoa ixilik dago eman nahi luke ordaina.

Hik eta biok halare orain nola hartu degun gaina. Bera erdian, gu albotara jarri gaituk alajaina, guardaespaldasak izan gintezken, pintarik ez dugu baina.

Beñat Gaztelumendi:

Nik pinta handirik ez det horrena ta Aginek ba ote du? Gu bi biok ezin gaitzek izan, Agin, zaintzale eredu. Halare hemen mikroa beste askori kentzen diegu. Alkateak ta apaizak baino gehiago agintzen degu.

**Maiatzak 24, ostirala,
20.00tan Usurbilgo Sutegin**

Joxan Artzeren ibilbide poetikoaz egindako irakurketa eta berrinterpretazio bat da. Ordubete inguruko emanaldi honetan diziplina ezberdinak barnebiltzen dira: Artzeren eta ikuskizunaren egileen poemen errezitaldia, zuzeneko musika, arte plastikoak eta ikus-entzunezko proiektzioa.

Egileak: Txakur Gornia kolektiboa (Malen Amenabar, Mariñe Arceo, Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal) eta Peru Galbete musikaria.

Sarrerak: Usurbilgo Lizardi liburudendan 8€ aldeaz aurretik, 10€ egun berean (Sutegiko leihatilan).